


Euskal AEko industria-prezioak % 0,3 jaitsi dira 2025eko otsailean, aurreko hilarekin alderatuta

2024ko otsailaren aldean, industria-prezioek % 1,0 egin dute gora

2025eko otsailean, Euskal AEko industria-prezioek % 0,3 egin dute behera aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Otsaileko urte arteko tasa, hau da, azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza jasotzen duena, % 1,0 igo da.

Azterketa xeheago batek agerian uzten du 2025eko otsailean ondoko sektoreek jaitsi zituztela gehien prezioak aurreko hilarekin alderatuta: *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 2,5), *Makinen eta ekipoen fabrikazioa* (% 1,3) eta *Garraiorako materialaren fabrikazioa* (% 1,0). Bestalde, prezioen hil arteko igoerarik handiena izan duten sektoreak honakoak izan dira: *Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria* (% 1,5) eta *Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza* (% 1,4).

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren arabera, 2025eko urtarilaren aldean, *Energiaren* prezioak % 1,4 jaitsi dira eta *Ekipo-ondasunen* prezioak % 0,8. *Kontsumo-ondasun* ez-iraunkorren prezioak % 1,7 igo direlako eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrak* % 0,4 jaitsi direlako. *Bitarteko ondasunen* prezioak, azkenik, % 0,2 igo dira.

Urte arteko datuei erreparatuta, hau da, 2025eko eta 2024ko otsaileko datuei erreparatuta, prezioen igoerarik handienak *Ura* (% 5,5) eta *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 4,9) adarretan izan dira. Aitzitik, urte arteko prezioek behera egin dute honako adar hauetan: *Koke-lantegiak eta petrolio-fintzeak* (% 8,8) eta *Kautxua, plastikoa eta bestelako produktu mineral ez-metalikoak* (% 0,4).

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Otsaila 2025

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	114,9	-0,3	1,0
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	136,2	1,3	3,4
Manufaktura-industria	117,3	-0,1	0,8
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	126,5	1,5	3,3
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	111,6	1,4	4,3
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	124,2	-0,1	4,2
Kokeak eta petrolio fintzen	122,8	-0,8	-8,8
Industria kimikoa	130,5	0,0	3,2
Botiken fabrikazioa	109,8	0,0	1,6
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	117,2	0,4	-0,4
Metalurgia eta produktu metalikoak	113,2	0,4	2,4
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	112,6	0,6	4,0
Material eta ekipa elektrikoaren fabrikazioa	117,0	0,0	4,4
Beste inon salikatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	114,4	-1,3	0,3
Garraiorako materialen fabrikazioa	115,3	-1,0	2,2
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	116,8	-0,5	1,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	88,2	-2,5	4,9
Ura	127,2	0,6	5,5
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	122,4	1,3	3,7
Kontsumoondasun iraunkorrak	115,6	-0,4	3,7
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	124,2	1,7	3,6
Ekipa-ondasunak	115,0	-0,8	1,9
Bitarteko ondasunak	116,4	0,2	2,0
Energia	107,6	-1,4	-3,9

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Martxoaren 24a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Xede ekonomikoaren arabera kontsumo-ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza goranzkoa izan da *Kontsumo-ondasunetan* (% 3,7) arrazoi hauengatik: *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioek % 3,7 eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorrek* % 3,6 egin dutelako gora. *Bitarteko ondasunen* prezioak % 2,0 igo dira eta *Ekipa-ondasunenak* % 1,9. Azkenik, *Energiaren* prezioak % 3,9 jaitsiera izan du urte batetik bestera.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik. Horiei esker, hilabete honetako indizea lagingaren % 85,01eko estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea/Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel: 945 01 75 62